



## Delikako Bidezidor Berdea Senda Verde de Delika



### DELIKAKO HARANA

Bi eskualde biogeografikoren artean dago, atlantikoan eta mediterraneoan, eta harana trantsizio-eremua da, non bi zonaldeetako flora- eta fauna-espezie bereizgarriak dauden. Haranaren hegaletan, pagadiak eta erkameztiak dira nagusi eta harkaitzari lotutako flora bariatate handia izateaz gain, harkaitzetako hegaztien aniztasun aberatsa ere badago. Horregatik, ingurune hori naturagune babestu baten parte da, eta Natura 2000 Sarearen barruan Arkamo-Gibijo-Arrastaria (ES2110004) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) gisa katalogatuta dago. Horrez gain, arroilaren erpinean, 200 m-tik gorako erorketa librean, Nerbioi ibaia ageri da, zeinaren ikusgarritasunagatik, Nerbioi ur-jauzia Interes Geologikoko Leku bezala katalogatuta dago.

Delikako Bidezidor Berdea beraz txoko hauetara gerturatzeko proposamen eder eta lasai bat da, Nerbioiko Parke Linealaren parte den ibilbidea.

### EL VALLE DE DELIKA

Situado entre dos regiones biogeográficas, la atlántica y la mediterránea, el valle es una zona de transición en la que se encuentran especies de flora y fauna características de ambas regiones. En las laderas del valle predominan hayedos y quejigales, y una gran variedad de flora ligada a la roca de gran interés, donde también alberga una rica diversidad de aves rupícolas. Por ello, este entorno forma parte de un espacio natural protegido, catalogado como Zona de Especial Conservación (ZEC) Arkamo-Gibijo-Arrastaria (ES2110004) dentro de la Red Natura 2000. Además, en el fondo del mismo valle se encuentra el río Nervión en una caída libre de más de 200 m, cuya espectacularidad hace que el Salto del Nervión esté catalogado como Lugar de Interés Geológico.

La Senda Verde de Delika es por tanto una bella y tranquila propuesta para acercarse a estos rincones, recorrido que forma parte del Parque Lineal del Nervión.

### BIDEAN ZEHAR...

Zalborondo zubia:

1767. urtean, Delika auzoak, Zalborondo inguruko ibai nagusiaren ibilguan oin berriko zubi bat eraikitzea erabaki zuen. "150 kobrezko dukat" (6000 € inguru gaur egun) balio zituen. Horretarako, mailegu bat behar izan zuen eta ondasun komunak eta propioak hipotekatu zituen. 1769an mailegua bertan behera utzi zuen, mendi zati baten salmentarekin.

### POR EL CAMINO...

Puente de Zalborondo:

En 1767 el vecindario de Delika decide acometer la construcción de un puente de nueva planta en el cauce del río mayor en el paraje de Zalborondo. Su coste era de "150 ducados vellón" (unos 6.000 € en la actualidad), para lo que necesitó un préstamo e hipotecó bienes comunes y propios. En 1769 canceló el préstamo con la venta de un pedazo monte.



Delikako ibaiaren ibilbidea:

Delika ibaiko ura kareharrizko zirkuren goialdetik sartzen da haranean, Nerbioi ur-jauzitik barrena. Ibilguari, bailararen hegalek zeharkatzen dituzten erreka ugariak ekarritako urak gehitzen zaizkio, baita inguruko mundu endokarstikoa osatzen duten lurpeko urak ere.


Denboraren poderioz, uraren etengabeko ekintzak eman du bide jauzi eta putzu naturalez betetako paisaia hau osatzeko.

El curso del río Delika:

Las aguas del río Delika se adentran en el valle desde la parte alta del circo calizo por el Salto del Nervión. A su cauce se suman las aguas aportadas por los numerosos arroyos que surcan las laderas del valle y también aguas subterráneas que forman el mundo endokárstico de la zona.

Con el paso del tiempo, la constante acción del agua ha dado lugar a la formación de este paisaje lleno de saltos y pozas naturales.





1h 40' 6,3 km 165 m

km 0

Ibilbidea, Delika sarreran dagoen aparkalekuan hasi eta errepide nagusia jarraituz herria zeharkatzen du. El itinerario comienza en el parking que está a la entrada y cruza el desvío para llegar al restaurante "El infierno". Evítalo y continúa recto.

km 0,8

Trenbidearen azpitik igaro eta "El infierno"-ko jatetxera heltzeko sarrera ezkerretara dago. Hau ekidin eta aurrera jarraitu. Tras pasar por debajo de las vías del tren, a la izquierda se encuentra el desvío para llegar al restaurante "El infierno". Evítalo y continúa recto.

km 1,6

Bi aukera daude: basoan barneratzea edo zubia gurutzatzea. Ibilbidea egiten lehenengo aldia izanez gero, Zalborondo zubia gurutzatzea gomendatzen da, ibilbidean aurrera egin ahala arroilaren kareharrizko pareta ikusgarriak aurrean izateko. Hay dos opciones: adentrarse en el bosque o cruzar el puente. En el caso de ser la primera vez que se realiza el recorrido, se recomienda cruzar el puente Zalborondo, para disfrutar de las espectaculares paredes de piedra caliza a medida que se avanza en el recorrido.

km 2

Eskumatara egiten duen bihurgunea jarraitu. El trazado continúa haciendo una curva hacia la derecha.

km 2,4

Bidegurutze honetan ere, eskumako bidea aukeratu, arroilaren hondorantz doan bidetik. En este cruce elige el camino de la derecha para dirigirte hacia el fondo del barranco.

km 3,3

Aurrera jarraitu ordez, errekarara jaitsi ibilbidearekin jarraitzeko. Beste bidea hartuz, Nerbioi ur-jauziaren oinetara heldu daiteke. En vez de seguir recto, acércate al río para continuar con el recorrido. Tomando el otro camino se llega a los pies del Salto del Nervión.

km 3,4

EURITE GARAIAIN:  
EZ gurutzatu ibaia, itzuli etorri zaren lekutik.  
EN ÉPOCA DE LLUVIAS:  
NO cruces el río, regresa por donde has venido.

km 4

Eskumako bidezidorretik jarraitu eta errekestoa gurutzatu. Continúa por el sendero de la derecha y cruza el riachuelo.

km 4,7

Ezkerreko bidezidorra jarraitu bide nagusiaren ordez, Zalborondoko zubira heldu eta abiapuntura bide berdinetik itzultzeko. Toma el sendero de la izquierda en vez del camino principal para llegar al puente de Zalborondo y alcanzar el punto de partida por el camino ya recorrido.

km 6,3

**EZ AHAZTU:**

**SALVADA MENDILERROA eta ARKAMO-GIBIJO-ARRASTARIA oso eremu sentikorrek dira; errespetatu zure inguruan dagoen flora eta fauna eta ingurunea mantentzen lagunduko duzu.**

**NO OLVIDES:**

SIERRA SÁLVADA y ARKAMO-GIBIJO-ARRASTARIA son espacios muy sensibles; respeta la flora y fauna que te rodea y ayudarás a conservar el entorno.

